

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

KONTROL MOZIOA

Ekialdeko Barrutiaren funtzionamendu arazotsuari buruzkoa

Zigor Etxeburua Urbizuk, EH Bildu udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2020ko irailaren 19an Zerbitzu Orokorren batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2015eko martxoaren 26an egindako osoko bilkuran, Donostiako Udalbatzak behin betiko onarpena eman zion Donostiako Barrutien Organo Araudiari. Era berean, erabaki horren bidez xedatu egin zen Ekialdeko barrutia abian jarraraztea, orduko legegaldaren amaiera baino lehen. Horrela, 2018ko maiatzaren 11n, Tokiko Gobernu batzordeak onartu egin zituen Ekialdeko Barrutiko Udal Batzordeko kideen izendapenak.

Ekialdeko Barrutiaren lehen aurrekontua 2019. urtean jarri zen indarrean. Aurrekontua, ordea, ez zen osorik exekutatu, egituraren disfunczioak zirela eta. Barrutien araudi organikoak zehazten du onartutako aurrekontu partida bakoitza kudeatzeko modua ezarri eta arautuko dela, baina disfunczioak hortik etorri dira, hain zuzen ere, ez baita argi zehaztu partidak kudeatzeko modua. Sarritan, Udaleko egitura zentralak oztopo bilakatu dira, bideratzaile eta laguntzaile baino. Horiek horrela, Barrutiko Udal Batzordearen eskaria bere egin eta erabili gabeko diru saila 2020ko aurrekontuan sartzea onartu zuen Donostiako Udaleko Ogasun sailak, erabili gabe gera ez zedin. Aurtengo aurrekontuari dagokionez, Barrutiko Udal Batzordeak lehentasunezko hamar ekimen hautatu zituen uztailean, aurrekontu horrekin gauzatzeko.

Urtearen azken hilabeteetan sartzan ari garen honetan, ordea, 2019tik datozen ekimenak eta horien diru sailak geldirik daude (edo egon dira), udal organo zentralak Barrutiaren egiturarekin adostu ez duten erabaki baten ondorioz. Aurtengo aurrekontuarekin ere beste hainbeste gertatzen ari da, artean ez baita exekutatu inolako diru sailik, Udaleko organo zentralak Covid-19aren testuinguruan hartu duten erabaki baten ondorioz. Barrutiko Udal Batzordeak ez du egoeraren inguruko zehaztasunik jaso organo horietatik.

Horri guztiari gehitu behar zaio Covid-19arengatiko Alarma Egoerak iraun zuen bitartean Barrutiko Udal Batzordeari ez zaiola jarduerarik eman, ez zaiola egoeraren inguruko informaziorik bidali, ezta kontsultarik egin ere barrutiko herritarrak pairatzen ari ziren egoeraren inguruan.

Egoera horren aurrean, Barrutiko Udal Batzarra osatzen duten elkarteek publikoki adierazi dute beren ezinegona Barrutiak bizi duen blokeo egoera dela eta: "Ekialdeko barrutia, parte-hartze hutsala" (2020/07/23), "Lankidetzeta falta Ekialdeko Barrutiarekin" (2020/10/02). Horrela, urriaren 14an, Barrutiko Udal Batzordea osatzen duten elkarteek Batzordearen bilera deitu zuten, eta bertara deitu zituzten Donostiako Udaleko Alkatea eta Ogasuneko zinegotzi ordezkaria, Barrutiarekin gertatzen ari denaren inguruko azalpenak eman zituzten. Argiki adierazi zuten elkarteek nolako ahalegina egin duten Ekialdeko Barrutiak aurrera egin dezan, eta nola topo egin duten horma batekin, Udalaren egitura zentraletan.

Bilera horretan, Alkateak onartu egin zuen funtzionamendu okerra izan duela Barrutiak. Hori arrazoitzeko esan zuen Udala oraindik ez dagoela prestatuta deszentralizatuki jarduteko, eta zaila izaten ari zaiela udal langileen artean barneratzen Barrutia badela. Aurreratu zuen Zeharkako Zerbitzuen Koordinatzailea lan horretan jartzeko asmoa, baina beste zehaztasunik eman gabe. Bestalde, aurrekontuarekin gertatutakoa egoera ekonomiko orokorraren ondorio gisa azaldu zuen. Ogasuneko zinegotzi ordezkariak aurreratu zuen inbertsioak

